## LAN ETA GIZARTE ARLOKO BALDINTZA ETA INGURUMENAREN BABESAREN ARLOKOAK

## OBREN KONTRATUAK

### 38.2.1.- ENPRESA KONTRATISTAK LAN, GIZARTE-SEGURTASUN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOAN DITUEN BETEBEHARRAK.

1.- Kontratistak lan arloan, gizarte segurantza arloan eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden xedapen legezko, arauzko eta konbentzional guztiak bete behar ditu. Zehazki, Gipuzkoako Eraikuntza eta Herri Lanetako Hitzarmen Kolektiboko lan-baldintzak aplikatu beharko ditu, indarrean leudeken eta hartan xedatutakoa hobetuko luketen enpresako beste hitzarmen edo itun batzuen kalterik gabe, bere erantzukizun esklusiboa izanik lan-istripuekin lotutako oro. Zehazki, zuzen, zorrotz eta bere kontura bete behar du Segurtasun eta Osasun Plana, eraikuntza obretan segurtasun eta osasuneko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan eta plegu honetan xedatutakoaren arabera idatzia eta onartua izan behar duena. Erakunde kontratatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango enpresa kontratistak ez baditu betebehar horiek betetzen.

2.- Enpresa kontratistak, era berean, egiaztatu beharko du, azpikontratatutako enpresei datu egokiak eskatu ostean, enpresa horiek ere obrak gauzatzen diren bitartean lan eta Gizarte Segurantza arloan indarrean diren xedapenak aplikatzen dituztela eta, zehazkiago, aipatutako Gipuzkoako Eraikuntza eta Herri Lanetako Hitzarmen Kolektiboko lan-baldintzak betetzen dituztela, indarrean leudeken eta hartan xedatutakoa hobetuko luketen enpresako beste hitzarmen edo itun batzuen kalterik gabe, eta baita segurtasun eta laneko osasun arloko betebeharrak aplikatzen dituztela ere.

## CONDICIONES LABORALES, SOCIALES Y DE PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE

## CONTRATOS DE OBRAS

### 38.2.1 OBLIGACIONES SOCIALES DE LA EMPRESA CONTRATISTA EN MATERIA LABORAL, DE SEGURIDAD SOCIAL Y DE SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO

1. La empresa contratista deberá cumplir todas las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes en materia laboral, seguridad social, y seguridad y salud en el trabajo. En particular, deberá aplicar las condiciones de trabajo del Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa, sin perjuicio de otros convenios o pactos de empresa que estuvieran en vigor y mejoren lo dispuesto en aquel, siendo de su exclusiva responsabilidad todo lo referente a accidentes de trabajo. En concreto, deberá ejecutar a su cargo y con toda diligencia el Plan de Seguridad y Salud, redactado y aprobado conforme a lo dispuesto en el Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción, y conforme a lo dispuesto en este pliego. El incumplimiento por parte de la empresa contratista no implicará responsabilidad alguna para la entidad contratante.

2.- La empresa contratista, igualmente, deberá justificar, después de haber solicitado a las empresas subcontratadas los datos oportunos, que estas empresas también aplican en la ejecución de las obras las citadas disposiciones vigentes en materia laboral y de seguridad social, y más concretamente, las condiciones de trabajo del citado Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa sin perjuicio de otros convenios o pactos de empresa que estuvieran en vigor y mejoren lo dispuesto en aquel, así como las obligaciones en materia de seguridad y salud laboral.

3.- Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa kontratistak ordaindu beharko du langilearen kategoria profesionalari aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, eta ezingo da inola ere izan hitzarmenekoa baino txikiagoa.

3.- La empresa contratista deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel.

4.- Kontratuaren egikaritzeak irauten duen bitartean, enpresa adjudikaziodunak kontratura atxikitako langileen lan-baldintzak mantendu beharko ditu derrigorrez aplikagarri den hitzarmen kolektiboaren arabera, horiek okertu gabe; eta hori, hitzarmen kolektiboei indarraldia amaitzeari buruz aurreikuspen legezko edo konbentzionalak aplikatzearen ondorioz aipatu hitzarmenak ondoren indarraldia galtzeko aukeraren kalterik gabe. Betebehar hori bete dela ulertuko da hitzarmenak indarra galdu aurreko – halakorik gertatuz gero – berehalako unean hitzartuta zeuden lan-baldintzak mantentzen badira. Edonola ere, lan baldintzak mantendu direla ulertuko da baldin eta lan baldintzak aldatu badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren arteko adostasunaren bidez. Hala ere, soldata baldintzak ezingo dira inola ere alorreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian xedatutakoak baino apalagoak izan. Kontratista baldintza hauek ziurtatzeko dagokion edozein dokumentazio edo informazioa aurkeztera behartua egongo da kontratazio organoari.

4.- Durante todo el periodo de ejecución del contrato, la empresa adjudicataria está obligada a mantener las condiciones de trabajo del personal adscrito al contrato en función del convenio colectivo que resulte de aplicación, no empeorando las mismas; y ello con independencia de que tal convenio pueda posteriormente perder su vigencia en aplicación de las previsiones legales o convencionales sobre finalización de la vigencia de los convenios colectivos. La obligación se entenderá cumplida si se mantienen las condiciones laborales vigentes en el momento inmediatamente anterior a aquel en que, en su caso, se produzca la pérdida de vigencia. En todo caso, se entenderá igualmente cumplida la obligación del mantenimiento de las condiciones laborales si estas hubieran variado por acuerdo alcanzado entre la empresa contratista y la representación de los trabajadores y las trabajadoras, si bien en ningún caso las condiciones salariales pueden ser inferiores a las establecidas en el convenio colectivo sectorial aplicable. La contratista vendrá obligada a facilitar al órgano de contratación cualquier información o documentación que le sea requerida para acreditar este extremo.

5.- Lizitatzaileek, beren eskaintzan zehaztu beharko dute kontratuko objektua den jarduera egiten duten langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatuko dieten, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Horrez gain, kontratua adjudikatu ondoren, langile horiei aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz ahalik eta informazio gehien aurkeztu beharko dute.

5.- Las empresas licitadoras deberán indicar el convenio colectivo que será de aplicación a los trabajadores y las trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en el caso de resultar adjudicatarias, y tendrán la obligación de facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a esos trabajadores y trabajadoras.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449608 - Fax 943 449658 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

6.- Enpresa esleipendunak kontratuko objektua den jarduera egiten duten langileei aplikatuko beharreko hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa jasoko da adjudikazio ebazpenean eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

6.- La información sobre el convenio colectivo que la empresa adjudicataria declare aplicable a los trabajadores y las trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato se incluirá en la resolución de adjudicación y se publicará en el perfil de contratante.

7.- Kontratura atxikitako langileen lan baldintzen edozein aldaketa, adjudikazioaren unean aplikagarria den hitzarmen kolektiboan xedatutakoak ez direnak, aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkio kontratazio organoari.

7.- Cualquier modificación en las condiciones laborales del personal adscrito, distintas a las establecidas por convenio colectivo aplicable en el momento de la adjudicación, deberá ser comunicada previamente al órgano de contratación.

8.- Enpresa kontratistak sexu-jazarpena eta sexuaren arrazoizko jazarpena ekiditeko lan-baldintzak bultzatu eta hori prebenitzeko eta horiek pairatu dituztenek egin ditzaketen salaketa edo erreklamazioei bide emateko prozedura berariazkoak arbitratu beharko ditu.

8.- La empresa contratista deberá promover condiciones de trabajo que eviten el acoso sexual y el acoso por razón de sexo y arbitrar procedimientos específicos para su prevención y para dar cauce a las denuncias o reclamaciones que puedan formular quienes hayan sido objeto del mismo.

9.- Klausula honetan jasotako betebeharrak betetzetik eratorritako gastuak enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira eta kontratua egikaritzako eskainitako prezioan barneratuta egongo dira.

9.- Los gastos derivados del cumplimiento de las obligaciones recogidas en esta cláusula serán por cuenta de la empresa adjudicataria y estarán incluidos en el precio ofertado para la ejecución del contrato

10.- Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak gizarte segurantzan izena eta alta emanda daudela, eta horren berri eman beharko dio kontratazio organoari.

10.- En caso de subcontratación, la empresa subcontratista deberá igualmente cumplir con lo dispuesto en esta cláusula. La empresa contratista deberá comprobar, con carácter previo al inicio de la actividad subcontratada, la afiliación y el alta en la seguridad social de los trabajadores y las trabajadoras de las empresas con las cuales subcontrate y lo debe comunicar al órgano de contratación.

11.- Enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, Errenteriako Udala zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Errenteriako Udalak

11.- Si a consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, el Ayuntamiento de Errenteria fuera condenada a asumir las consecuencias económicas que de aquél se derivan, se repercutirán las mismas en la contratista, a cuyos efectos el



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449608 - Fax 943 449658 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

12.- Aurreko lerroaldeetan ezarritako betebeharrak gauzatzeko baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Hura ez betetzeak berekin ekarriko du, zigor ekonomikoak ipintzea, ez-betetzearen proportzionaltasunaren arabera, eta zigorraren zenbatekoa ezingo da kontratuko prezioaren % 10 baino handiagoa izan, kontratua gauzatzeko baldintza bereziak izeneko **38.2.4. klausulan** azpikontrataziorako ezarritako salbuespenarekin. Enpresa edo erakunde esleipendunak azpikontratua islatuko duen dokumentua aurkeztu beharko du kontratazio organoaren aurrean. Bertan enpresa edo erakunde azpikontratistak kontratu honetan aurreikusitako klausulei eta horiek ez betetzearen ondorioei dagokienez dituen betebeharrak ezarri beharko dira. Nolanahi ere, plegu honen arabera betebehar baten ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du.

Ayuntamiento de Errenteria se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades satisfechas

12.- Las obligaciones impuestas en los párrafos anteriores se establecen como condiciones especiales de ejecución y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución del contrato. Su incumplimiento supondrá,con la salvedad de lo establecido para la subcontratación en la **cláusula 38.2.4** la imposición de penalidades económicas, proporcionales a la gravedad del incumplimiento y su cuantía no podrá ser superior al 10 por 100 del precio del contrato. En todo caso, las obligaciones cuyo incumplimiento tiene carácter muy grave conforme al presente pliego tendrán la consideración de obligaciones contractuales de carácter esencial, y su incumplimiento podrá dar lugar a la resolución del contrato.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449608 - Fax 943 449658 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus